



Usurbilgo Udala

**TOKIKO GOBERNU BATZARRAK 2017KO ABENDUAREN 19AN  
GOIZEKO 8:30EAN EGINDAKO EZOHIKO BILKURAKO AKTA**

**BERTARATUAK:**

**Alkatea:** Xabier Arregi Iparragirre.

**Zinegotziak:** Jone Urdanpilleta Urdanpilleta eta Alaitz Aizpurua Labaka.

**Idazkaria:** Garazi Etxeberria San Miguel.

**Ezin-etorria adierazi dute:** Irene Gartzia Palaciossek eta Josune Estella Arranzek.

**1.- AURREKO AKTEN ONESPENA: 2017/11/28KO BILKURA.**

Batzarkideek, 2017ko azaroaren 28ko bilkurako akta aho batez onartu dute.

**2.- LACTEOS BORDATXO, S.L. ENPRESARI, AGINAGAKO IARBE BASERRIAREN ONDOKO UKUILUARI ERANTSITA, TXEKOR GAZTEAK GORDETZEKO ERANSKINA ERAIKITZEKO UDAL BAIMENA EMATEA.**

Esp. Zenbakia: HZ.04/2011-0050

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2013ko irailaren 24ean, zera erabaki zuen hitzez hitz:

**LEHENDABIZI:** LACTEOS BORDATXO, S.L. enpresari, Aginagako larbe baserriaren ondoko ukuiluari erantsita, txekor gazteak gordetzeko eranskina eta behiak jezteko gela eraikitzeke udal baimena ematea, ondorengo baldintza bereziak betetzekotan:

- Obrak hasi aurretik, ondokoak burutu beharko dira **derrigorrez**:
  - Kokapenari dagokionez, larbe baserriarekiko gutxienez 50 m-ko distantzia mantendu beharko du (AASS. 53. Art.) eta distantziak errespetatzen dituenaren **planoa aurkeztu beharko da**.
  - **Arau Subsidiarioen 53. artikuluari dagozkion xedapenak bete beharko dira**.
  - Obraren zuzendaritza enkarguaren kopia aurkeztuko da.
  - Soka zuinketa egingo da birplanteo akta sinatzeko.
- AASStan Lur Ez Urbanizagarriko ezarritako xedapenak beteko dira.
- Behin obrak bukatu ostean, eta hilabeteko epean Lehen Erabilera baimena eskatuko da ondorengo dokumentuz lagundurik:
  - Obra lanen lizentziaren edo lizentzien kopia.



Usurbilgo Udala

- Obren Zuzendari Teknikoak zigilatu eta bisaturiko Amaiera Ziurtagiria edo obra lanen bukaeraren egiaztagiria, lan horiek lizentziaren funtsa den proiektuaren arabera gauzatu direla adieraziz, ezarriko zirratekeen baldintza bereziak ere kontutan izanda.  
Horrekin batera NBE-CA-88a eta Eraikuntzaren Kode Teknikoa betetzen duela ziurtatuko duen agiria aurkeztuko da, Zuzendari Teknikoak zigilaturik eta Kolegioan bisaturik.
  - Egiaz burututako obra lanen planoak, lizentziaren funtsa zen proiektuari galdatzen zitzaizkion eskalez eta xehekapen mailaz. 1/200 edo 1/500 eskaladun Udal kartografiaren gainean, lurzatiaren behin betiko egoeraren planoak ere aurkeztuko da, burututako eraikuntza eta hirigintzazko obra lanak bertan jasoaz eta ondoriozko sestra berriak aipatuz.
  - Eraikin edo instalazioen kanpoko aldean argazkiak, 13 x 18 cm. takoak, atzealdean baimenaren titularrak, obra lanaren Zuzendariak eta proiektuaren egileak izenpetuta, errealitatearekin bat datozeela adieraziz.
  - Lurralde kontribuzioaren alta.
  - Lurraldeko Industria Delegazioak izenpeturik elektrindarraren hornikuntza sareko loturako buletinaren eta kasua balitz, gas metaketa eta banakuntzarako instalazioari dagokion egokitasun egiaztagiriaren kopia. Era berean, ur hornikuntzaren Industria Delegazioak izenpeturiko buletina aurkeztuko da.
- Lege arau eta ordenantzen arabera, obra egiteko baimenak balioa izatekotan, baimenduak bete beharreko baldintza orokorrak hauek dira:
    - Eraikuntzako Ordenantza orokorrak beteaz egingo da obra.
    - Obra egin bitartean inor kaltetuz gero, ezingo du baimenaz baliatu kalteen erantzukizun zibila ekiditeko.
    - Indarrean dauden lege eta ordenantzen araberako segurtasun neurriak beteko dira.
    - Obrak lizentzi ematen egunetik SEI HILABETEAN hasiko dira eta beste BI URTETAN bukatuko dira.

**BIGARRENA:** Aldez aurretik obrari dagokion udal zerga ordainduko da.

**HIRUGARRENA:** Erabaki honen berri interesatuari eta Kontuhartzaileari emango zaio.

Orain berriz, LACTEOS BORDATXO, S.L. enpresak, bere egunean larbe baserriaren ondoko ukuiluari erantsita, txekor gazteak gordetzeko eraiki gabe utzi zuten eranskina eraikitzeke udal baimena eskatzen du. Baimena jaso arren, behiak jezteko gela bakarrik eraiki zuten orduan.

Aurkeztutako idatzia eta espedientea aztertu ostean, Nekazaritza eta Ingurumen Teknikariak, Ibon Goikoetxea Retegik, ALDEKO txostena eman du. Hitzez hitz honela dio:



Usurbilgo Udala

(...)

Aipatu araudiak berdin jarraitzen du 2017. urtean (jarduera mota honi dagokionez) eta beraz 2013. urtean egindako txostena berresten da. Orain egin nahi den eranskina egiteko ALDEKO txostena igortzea proposatzen dut.

Dena den, eskaeran aipatzen da esne bilketarako gela egin dela eta bertan 2013ko irailak 24an eman zen baimenean jasotako hainbat baldintza ez direla bete ikusi da, eta beharrezkoak ziren egitea **obra hasi aurretik**. (distantziak errespetatzen direnaren planoak, obra zuzendaritza enkarguaren kopia, soka zuinketa). Horretaz gain, obra bukatu eta hilabeteko epean **lehen erabilera baimena** eskatu behar zen.

Ondorioz, baimena berritzeko ALDEKO txostena igortzea proposatzen dut, baina beti ere, aurrez eskatutako baldintzak betetzeko baldintzapean.

Usurbilen, 2017ko abenduak 12an.  
UDAL INGURUMEN ETA NEKAZARITZA TEKNIKARIA  
Izta.: Ibon Goikoetxea Retegi

Gauzak horrela, eskaria kontutan hartuz, Nekazaritza eta Ingurumen Teknikariaren ALDEKO txostena irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

## ERABAKIA

**LEHENDABIZI:** LACTEOS BORDATXO, S.L. enpresari, Aginagako larbe baserriaren ondoko ukuiluari erantsita, txekor gazteak gordetzeko eranskina eraikitzeko udal baimena ematea, ondorengo baldintza bereziak betetzekotan:

- Obrak hasi aurretik, ondokoak burutu beharko dira **derrigorrez**:
  - Kokapenari dagokionez, larbe baserriarekiko gutxienez 50 m-ko distantzia mantendu beharko du (AASS. 53. Art.) eta distantziak errespetatzen dituenaren **planoa aurkeztu beharko da**.
  - **Arau Subsidiarioen 53. artikuluari dagozkion xedapenak bete beharko dira**.
  - Obraren zuzendaritza enkarguaren kopia aurkeztuko da.
  - Soka zuinketa egingo da birplanteo akta sinatzeko.
- AASStan Lur Ez Urbanizagarriko ezarritako xedapenak beteko dira.
- Behin obrak bukatu ostean, eta hilabeteko epean Lehen Erabilera baimena eskatuko da, eranskinena zein behiak jezteko gelarena, ondorengo dokumentuz lagundurik:
  - Obra lanen lizentziaren edo lizentzien kopia.
  - Obren Zuzendari Teknikoak zigilatu eta bisaturiko Amaiera Ziurtagiria edo obra lanen bukaeraren egiaztagiria, lan horiek lizentziaren



Usurbilgo Udala

funtsa den proiektuaren arabera gauzatu direla adieraziz, ezarriko ziratekeen baldintza bereziak ere kontutan izanda.

Horrekin batera NBE-CA-88a eta Eraikuntzaren Kode Teknikoa betetzen duela ziurtatuko duen agiria aurkeztuko da, Zuzendari Teknikoak zigilaturik eta Kolegioan bisaturik.

- Egiaz burututako obra lanen planoak, lizentziaren funtsa zen proiektuari galdatzen zitzaizkion eskalez eta xehekapen mailaz.  
1/200 edo 1/500 eskaladun Udal kartografiaren gainean, lurzatiaren behin betiko egoeraren planoak ere aurkeztuko da, burututako eraikuntza eta hirigintzazko obra lanak bertan jasoaz eta ondoriozko sestra berriak aipatuz.
  - Eraikin edo instalazioen kanpoko aldean argazkiak, 13 x 18 zm.takoak, atzealdean baimenaren titularrak, obra lanaren Zuzendariak eta proiektuaren egileak izenpetuta, errealitatearekin bat datozela adieraziz.
  - Lurralde kontribuzioaren alta.
  - Lurraldeko Industria Delegazioak izenpeturik elektrindarraren hornikuntza sareko loturako buletinaren eta kasua balitz, gas metaketa eta banakuntzarako instalazioari dagokion egokitasun egiaztagiaren kopia. Era berean, ur hornikuntzaren Industria Delegazioak izenpeturiko buletina aurkeztuko da.
- Lege arau eta ordenantzen arabera, obra egiteko baimenak balioa izatekotan, baimenduak bete beharreko baldintza orokorrak hauek dira:
    - Eraikuntzako Ordenantza orokorrak beteaz egingo da obra.
    - Obra egin bitartean inor kaltetuz gero, ezingo du baimenaz baliatu kalteen erantzukizun zibila ekiditeko.
    - Indarrean dauden lege eta ordenantzen araberako segurtasun neurriak beteko dira.
    - Obrak lizentzi ematen egunetik SEI HILABETEAN hasiko dira eta beste BI URTETAN bukatuko dira.

**BIGARRENA:** Erabaki honen berri interesatuari emango zaio.

**Eta eztabaidarako gaiak amaiturik, alkateak batzarraldia bukatutzat eman du, goizeko 8:45ean bilera agiri hau jaso da, batzordekideek izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.**